

Itzurun-Arranpla 2018 itsas zeharkaldiaren araudia

Antolatzailea

TAOSA IGERI KLUBA.

Laguntzaileak

Zumaiaiko Udala

Lekua

Zumaia

Irteera Itzurungo hondartzan egongo da, eta helmuga, Arbustaingo arranplan. Irteeratik helmugara 450 m-ko distantzia dago, **oinez**.

Data

2018ko abuztuaren 11

Ordutegia eta ibilbidea

Irteera 16:00etan izango da Itzurungo hondartzatik. Ibilbideak itsaso zabaleko tarte bat eta erriko tarte bat du. Guztira 3.000 m ditu, 2 km inguru itsasoan eta km 1, errikoan. Zeharkaldia marea gora datorrela egingo da, eta, beraz, erriko zatia korrontearen alde izango da.

Ibilbidean jarriko diren buiak eskuinean utzi beharko ditu igerilariak.

Parte-hartzea

15 edo gehiago dituzten igerilariak hartu ahal izango dute parte. Gutxieneko adin hori ekitaldia egiten den urteko abenduaren 31n izaten dena da, eta, beraz, 2003/12/31n edo lehenago jaiotakoek hartu ahal izango dute parte.

Izen-emateak

Izen-emateak Kirolprobak gunean egingo dira (www.kirolprobak.com).

Izena emateko epea **2018ko maiatzaren 15ean** zabalduko da, eta **2018ko abuztuaren 7an** itxiko da.

Izen-ematea 20 € dira. Txip horia ez duten igerilariak 3 € gehiago ordaindu beharko dute, txip-alokairuagatik. Txipa itzuli egin beharko da proba amaitutakoan.

Gehienez **400** parte-hartzaile izango ditu probak.

Ezin da parte-hartzailea aldatu. Izen-emateak pertsonalak eta besterezina da, ezin du izena eman duen pertsona ez den beste inork erabili.

Norbaitek beste bati uzten badio bere plaza, bigarren horrek izandako edo eragindako istripu ororen erantzule izango da. Halako egoeretan, antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain.

Antolatzaileak eskubidea du dortsala ematen eta onartzen hautematen dituen pertsonen zigorra jartzeko.

Dortsala, txipa eta igerilariaren poltsa jasotzea

Arbustainen arranparen ondoan jasoko dira, probaren egun berean, **11:00etatik 15:00etara**. Materiala lehenbailehen jasotzea gomendatzen da, azken orduan pilaketarik ez egoteko.

Igerilariaren poltsa jasotzeko, NANA aurkeztu beharko da. Izen-ematearen egiaztagiria eramatea gomendatzen da, izapideak errazteko eragozpenen bat izanez.

Kontsigna

Kontsigna-zerbitzua egongo da parte-hartzaileen arropa eta gauza pertsonalak jasotzeko. Helmugan, Arbustaingo arranplan egongo da lehenengo kontsigna, eta irteeratik oso gertu dagoenez, ez da beharrezkoa arroparik edo gauza pertsonalik eramatea Itzurungo hondartzara, baina parte-hartzailearen batek eraman nahi badu, beste kontsigna bat egongo da hondartzan. Hala eginez gero, igerilariaren poltsan sartuta egitea gomendatzen da, dortsal zenbakia jarrita duela.

Kontsignan uzten diren poltsek igerilariaren dortsalaren zenbakia jarrita eduki behar dute. Zeharkaldia amaitutakoan, poltsa guztiak Arbustaingo arranplako kontsignan jasoko dira.

Sailkapenak eta garaikurrak

Sailkapen orokor bat egongo da, eta sexuaren arabera beste bat. Probaren irabazleek, gizonen zein emakumeen kategorian, garaikurra izango dute, eta lehenengo hirurek sariak izango dituzte. Lehenengo emakume zumaiairak eta lehenengo gizon zumaiairak garaikurra izango dute.

Sariak Arbustaingo arranplaren inguruan emango dira **18:00etan**.

Ordezko arauak

Proba Gipuzkoako Igeriketa Federazioaren ur irekietako araudi ofizialak arautuko du, bai eta RFENren ur irekietako araudi ofizialak eta araudi honetan bertan ezarritako arauak.

Gogorazten da NEOPRENOZKO TRAJEAK EZ DAUDELA ONARTUTA. Debekatuta daude erlojuak eta antzekoak ere (GPSa, pultsometroa...).

Igerilarien segurtasuna bermatzeko aldaketak. Proba bertan behera geratzea. Zero arrisku.

Antolatzaileak eskubidea izango du ibilbidea aldatzeko, irteera-ordua atzeratu edo aurreratzeko, eta probaren eguna aldatzeko edo bertan behera uzteko, igerilarien segurtasuna bermatzeko.

Ibilbide alternatiboa: itsasoaren egoerak proba itsasoan egitea eragozten badu, ibilbide alternatiboa egingo da Urola erriean. Erriean ezin bada egin, proba bertan behera geratuko da.

Gomendioak

Aparkalekua: hondartza-garaia denez, oso zaila izango da irteeratik eta helmugatik hurbil aparkatzea. Horregatik, parte-hartzaileei Basusta Bidea poligonoan aparkatzea gomendatzen zaie. Edo kirol-portuaren ondoko aparkalekuan, azken horretan itsasontzi-zerbitzu bat baitago ibaia zeharkatzeko (ordaindu egin behar da).

Helmugatik hurbil bi TAO/OTA gune daude:

- Kaian bertan: errotazio handiko eremua, kolore urdina eta gorria. Larunbatetan gehienezko iraupena 1,5 ordu da 9:00etatik 13:00etara, eta 6 ordu, 13:00etatik aurrera.

Itzurun-Arranpla 2018 itsas zeharkaldiaren araudia

- Julio Beobide ibiltokian: egonaldi ertaineko eremua, kolore urdina eta berdea. Gehienezko iraupena 6 ordu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, sartu Zumaiaiko Udalaren webgunean:

https://zumaia.eus/eu/tao?set_language=eu

Igerilariekin datozenak: igerilariekin datozenek hainbat lekutatik ikus dezakete proba, eta, izan ere, ia proba osoa ikusteko aukera dute: irteera Itzurunetik ikusi eta Julio Beobide pasealekutik kaiaren muturreraino joan, eta handik igerilariak iristen ikusi eta arranplara arteko bidean haien parean joan.

Tabernak eta jatetxeak: Arbustaingo arranplaren inguruan taberna eta jatetxe asko daude. Hurbilenak Amaia plazako etheen inguruko beheetan daude. Herrigunean ere hainbat eta hainbat daude, Erribera kalean barrena Eusebio Gurrutxagara arte, eta Erribera kalearen pareko kalean, portura ematen duenean ere bai. Azkenik, Itzurungo hondartzan kantina bat dago, zerbait jateko edo edateko aproposa.

